

Azken ordukoak

Berriak

Harian
Iritzia
Euskal Herria
Ekonomia
Mundua
Gaiak
Kirola
Kultura
Azkena

Agenda

Agenda
Eguraldia
Zozketak
Horoskopoa
Telebista

Farmaziak

Telefonoak

Bereziak

Webguneak
Gure gaiak
Pareak bai
Elkarrizketak
English Edition
Bisitak
Hemeroteka

Zerbitzuak

Harpidetza
Publizitatea
Mezuak

Euskal Herria

Amodioaren mitoaren aurka

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA. «Mendabaldeko kulturak sustatutako amodio erromantikoak» biolentziari laguntzerakoan duen eraginaz ohartarazi du Pilar Sanpedro psikologo feministak

LUIS KARLOS GARCIA - GASTEIZ

N

ola ote liteke urteetan eta urteetan biolentzia pairatu eta biktima den emakumeak erasotzailearekin batera bizitzen jarraitu nahi izatea? Zailtasun ekonomikoak izaten dira tartean, baina baita emozionalak ere, eta horiei buruz mintzatu da Berriarekin Pilar Sanpedro psikologoa, gizarteak «amodioaren mitoaz» eraikitako filosofia ezkutuari kritika sakon eta ezohikoa eginez.

«Bitxia da, baina nahiz eta lagunak on gehien egiten diguten edo gehien errespetatzen gaituztenen artean aukeratzen ditugun, sarri askotan gertatzen da emakumeok bikotea sortzea batere onik egiten ez diguten eta atsekabetuta nahiz min fisiko eta psikikoak jota uzten gaituztenekin». Gogoeta ugari egin ditu Sanpedrok «sufrikarioz betetako amodio penagarri horiek» zergatik gertatzen diren argitzeko.«Kulturara» jotzen du azalpen bila, baina, lehenengo eta behin, auzitan jarri du pentsamolde garaikidearen oinarria: «Zer kultura mota da hau, emakumeak, heldu eta oso prestuak horietako batzuk, amodioaren izenean umiliazioa onartzera daramatzana?». Horregatik, nolabait, terapia egin behar duena gizartea bera dela dio; «gailendu dituen kontzeptu, mito eta abarrek ematen baitiote bide emakumeen aurkako indarkeriari».

Amodioa «dagokion mailan» bizitzeko deia

Sanpedro psikologoa da eta sexologian aditua. Bere eskarmentuak dio gehiago sufritzen duela «amodio-bizitzari, gainerako kontu guztien gainetik, garrantzi handia ematen dionak». Hortaz, amodioaren bizipena «dagokion mailan» egin behar dela uste du.

Bikote erasotzailea utzi beharko lukeen emakumeak, kasu, ez du dagokion moduan bizitzen. Tratu txarrak jasan dituen horrek «biografia suntsitu beharko balu bezala» hartzen du gizona utzi beharra, nahiz eta erasoak jasan behar izan: «Emakumeok bizitza proiektua alde batera utzi beharrean baleude bezala sentitzen dira. Ildo horretan, amodioa bazter uzteak emakume horren bizitzaren erabateko porrota esan nahi du, eta nekez biziko du aldaketa hori bizitza hobetzeko abagunetzat hartuta».Horretan, amodioaz emakumearentzat egindako kontzeptuaren errotoak du errua Sanpedrorentzat. Ildo horretan, kultura garaikidearen hainbat eta hainbat adierazletan sakondu du: «Izan ere, gure kulturak sustatzen duen amodio erromantikoaren eredu da genero indarkeriari laguntzen dion arrazoieta bat».Mendabaldeko literaturan nahiz artearen beste diziplina askotan, hala Tristan eta Isoldaren istorioan nola Romeo eta Julietarenean, «amodio zoriontsuek» tokirik ez dutela ohartarazi du

EROSKETAK

m megadenda.com



EUSKAL HERRIA ETA FESTA

YANIZ, SANTIAGO /
URBELTZ, JUAN
ANTONIO
42,75 €

Hitza eta irudia

SAIL HONETAN

- Kontseiluak dioenez, planean ez dago euskararen aldeko urratsik
- Naiara Mallabia presoak Poliziari jipoitu egin duela salatu du
- Espainia bat eta bakarra
- San Jeronimoko borrokaren zain
- Jaurlaritzak adierazpen instituzionala kaleratuko du urteurrenean
- «Estatutuari alderdiren bat lotuta egon bada, EE egon da»
- Eroskeria kasua epaitu dezakeen edo ez erabakiko du gaur Auzitegiak
- «Mugaz gaindiko» harremanak aztergai, 23an
- Itxiera lau hilabetez luzatu du Del Olmok
- Frantziako Poliziari Estebeni Negrete atxilotu du, Pauen duen etxean
- Faxismoa «herri borondatea islatzen ez duten udalak osatzea» dela dio Otegiak
- Emakume etorkinei zuzenduriko kanpaina hasi du Jaurlaritzak
- Medikuek errauste plantei buruz ariko dira Donostian
-
- Sanz: «Urtegiaren

psikologoak: «Mendebaleko lirismoak goratzen duena ez da zentzumenen plazerra, ezta bikotearen bakea ere; ez da begirunea, ezta bestea ezagutzea ere; amodioaren bizipena sufritzen duen pasio baten modura agertzen da». Horrek guztiak azken bolada honetan hedabideetan erruz topatzen dugunarekin zerikusia duela nabarmendu du, hots, «biolentziaren espirala deritzona» dakarrela askotan: «Gaur jo egiten du bikotekidea erasotzaileak eta bihar 'inoiz baino gehiago maite zaitut', esaten dio. Indarkeriaren agerpen ziklikoak dira».

Emakumearentzat dena, gizonarentzat zati bat

Psikologo feminista, beste zenbait egileren lanen bitartez, historiako emakumeen heziketa sentimentalean murgildu da, eta Ana Karenina, Madame Bovary, Melibea eta osterantzekoek amodioa euren bizitzaren atal nagusitzat hartzen dutela ikusi du. «Kasu gehienetan sumatzen da emakumezko protagonistarentzat bizitza osoa dena, hain zuzen ere, zati bat besterik ez dela gizonezkoarentzat. Arazoa da, bada, egun ere emakume gehienek amodioa lehentasunezko eta funtsezkotzat hartzen dutela oraindik ere, eta hori gabe bizitzak batere zentzurik ez daukala ziurtatzen dute».

Aldiz, Sanpedroren aburuz, belaunaldi berriak analisi kritiko baten arabera hezi beharko dira: «Planteamendu errealistagoekin, esate batera, amodio hautuaren arbitrarietateari buruz; konturatu beharko ginateke ez dagoela betiko zeharo asebate gaitzakeenik, amodioa ezin daitekeela oinarritu sakrifizioan edo ezin daitekeela hipotekatu norbanakoaren egitasmoa amodioaren izenean».

sortutako arazoak konpondu ditugu ubidearekin»

• EAEko Arartekoak «baliogabetzat» jo du gobernu taldearen akordioa

• SNCFi txartel gorria ateratzen dio Elbarrituen Elkartek

• Kalamua legez erabili nahi dute bularreko minbizia duten gaixoek

• Herritar batek zigorra jasoko du epaiketa batean itzultzailea ez onartzeagatik

Inprimatu



E-postaz bidali



Gomendatu

